



Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria

2023ko deialdiaren oinarriak

HAUTAGAIEN AURKEZPENA

Pertsona fisikoak nahiz juridikoak aurkeztu ditzake hautagaiak. Ezin izango da hilda dauden pertsonen hautagaitzarik aurkeztu.

IRIZPIDEAK

Hauek izango dira irabazlea aukeratzeko jarraituko diren balioespen-irizpideak:

- Balio Unibertsala
- Bizitzako ibilbide osoa
- Ekarpen adierazgarriak egin izanak euskal kulturari
- Bere obraren dibulgazioa
- Eremu akademikotik at buruturiko jarduerak

Epaimahaiak, hala iritziz gero, saria banatu gabe utz dezake.

HAUTAKETA-PROZESUA

Saria erabakitzeke bi modutara emandako botoak zenbatuko dira:

1. Euskal Komunitate Globalera irekitako partaidetza birtual bidez, Eusko Ikaskuntzako kide direnen eta ez direnen botoak bereiziz. Horretarako, Eusko Ikaskuntzaren webgunean atal bat irekiko da.

2. Epaimahai Instituzional baten bidez, Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak eta Euskal Herrian erreferente diren entitateetako zazpi ordezkari osatuko dutena. Sariduna hautatzeko botoa jarraian adierazten diren portzentajeen arabera haztatuko da:

- Eusko Ikaskuntzako bazkideak % 30
- Euskal Komunitate Globala % 10
- Epaimahai Instituzionala % 60

LURRALDE-OREKA

Eusko Ikaskuntzak bermatuko du Manuel Lekuona Sariaren palmaresak Euskal Herriko lurraldeetako ekintzak islatuko dituela.



GENERO-OREKA

Era berean, epaimahaiak emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatze aldera, emakumezkoen hautagaitzak aintzat hartuko ditu bereziki. Euskal Herriko lurralde-errealitate ezberdinak islatzen dituzten pertsonak lehenetsiko ditu.

SARIA ZERTAN DATZA

Remigio Mendiburu artistak egindako brontzezko eskultura bat eta saritutako pertsonaren bio-bibliografiaren argitalpena.

Sari-banaketa ekitaldi publiko batean egingo da.

DOKUMENTAZIOA

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

- Hautagaitza aurkezpen eskutitza
- Webguneko inprimakia beteaz edo inprimaki arautua bidaliz
- Curriculum Vitae

Hautagaitzak info@eusko-ikaskuntza.eus helbide elektronikora zuzendu beharko dira.

Hautagaiak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan zehazten diren baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

EPEAK

2023. urteko ediziorako hautagaitzak aurkezteko epea **2023ko ekainaren 26tik irailaren 15era** izango da.

Bozketak birtuala **2023ko irailaren 25etik urriaren 1era** izango da. Erabakia 2023ko urriaren zehar, epaimahai instituzionala bildu ondoren, jakinaraziko da.

INFORMAZIO GEHIAGO

Eusko Ikaskuntza

Tel.: 943 310855

E-posta: info@eusko-ikaskuntza.eus



Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria jaso duten pertsonalitateak

- | | |
|---|-------------------------------------|
| 1983. Manuel de Lekuona | 2003. Jesus Atxa Agirre |
| 1984. Odón Apraiz | 2004. Jean Haritschelhar |
| 1985. P. Jorge de Riezu | 2005. Elías Amézaga Urzélaga |
| 1986. Andrés de Mañaricua y Nuere | 2006. Menchu Gal |
| 1987. Justo Gárate | 2007. Sabin Salaberri Urzelai |
| 1988. Manuel Laborde | 2008. Montxo Armendáriz |
| 1989. Eugène Goyheneche | 2009. Txomin Peillen
Karrikaburu |
| 1990. Gerardo López de Guereñu
Galarraga | 2010. Jose Antonio Arana Martixa |
| 1991. Carlos Santamaría Ansa | 2011. Jose Luis Ansorena Miranda |
| 1992. Bernardo Estornés Lasa | 2012. Soledad Silva y Verástegui |
| 1993. Francisco Salinas Quijada | 2014. Antxon Aguirre Sorondo |
| 1994. Xabier Diharce “Iratzeder” | 2015. Joan Mari Torreal dai |
| 1995. Adrián Celaya Ibarra | 2016. Jean Louis Davant Iratzabal |
| 1996. Jorge Oteiza Embil | 2017. Fermín Leizaola Calvo |
| 1997. Micaela Portilla Vitoria | 2018. Mari-Jose Azurmendi
Ayerbe |
| 1998. José María Jimeno Jurío | 2019. Xabier Amuriza |
| 1999. Piarres Charriton | 2020. Jose Ramon Etxebarria |
| 2000. José Miguel de Azaola Urigüen | 2021. Jon Bagüés Erriondo |
| 2001. José Ignacio Tellechea
Idígoras | 2022. Enkarni Genua Espinosa |
| 2002. Armando Llanos Ortiz de
Landaluze | |